


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,7 jaitsi dira 2021eko apirilean aurreko hilaren aldean

Aurreko urteko hil berarekin alderatuta (2021eko apirila 2020ko apirilarekin alderatuta), kostuak % 0,5 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,7 jaitsi da 2021eko apirilean, aurreko hilaren aldean. Urte arteko terminoetan, kostuak % 0,5 igo dira.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 0,6 jaitsi dira hil artean, eta Obra zibilekoak % 1,5. 2020ko apirilarekin alderatuta, bestalde, prezioen aldakuntza positiboa izan da: % 0,6 Etxegintzaren kasuan eta % 0,1 Obra Zibilarenean.



Aurreko hilabetearen aldean **lehengaien** kostuak % 1,0 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, egonkor mantendu da (% 0,0). Urtetik urterako terminoetan, lehengaien kasuan ez da aldaketarik izan (% 0,0); eskulana, berriz, % 1,9 igo da.

Apirilean, Etxegintzaren sektoreak % 0,8ko hil arteko jaitsiera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra zibilaren sektoreak % 1,9koa. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 0,1 igo dira, eta Obra Zibilekoek, ordea, % 0,4 egin dute behera.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntzatasak(p). 2021eko apirila

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	107,0	-0,7	0,5
Eraikinak	107,3	-0,6	0,6
Obra zibila	105,7	-1,5	0,1
LEHENGAI	106,0	-1,0	0,0
Eraikinak	106,3	-0,8	0,1
Obra zibila	104,4	-1,9	-0,4
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioei dagokienez, 2021eko apirilean, 2020ko apirilaren aldean, honako sektore hauek nabarmendu dira igoeretan: *Petrolio* (40,3%), *Metalurgia* (15,0%) eta *Material elektronikoa* (4,9%). Aitzitik, prezioetan jaitsierak izan dituzte sektore hauek: *Mineral ez-metalezkoak* (-6,8%), *Makineriaren fabrikazioa* (-1,4%) eta *Kautxu eta plastikoa* (-0,4%).

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021eko apirila

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-6,8
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	2,8
10 - Petrolio	40,3
11 - Industria kimikoa	4,0
13 - Kautxu eta plastikoa	-0,4
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	-0,3
15 - Metalurgia	15,0
16 - Metalezko artikulak	1,2
17 - Material elektronikoa	4,9
18 - Material elektrikoa	2,3
19 - Makineriaren fabrikazioa	-1,4
22 - Altzarigintza	1,4
24 - Energia elektrikoa eta gasa	0,5

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62